

FAMILIAK, AZL-AK ETA BESTE HEZKUNTZA-ERAGILE BATZUK. DIAGNOSTIKOA**10.2 TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu zure adostasun-maila, 1etik (batere ados ez) 4ra (erabat ados).

GATAZKEN ERALDAKETA BAKETSUA HEZKIDETZA-BIZIKIDETZAKO PROIEKTUEN BIDEZ				
IKASTETXEAN				
20. Ikastetxean ez da agertzen, era jarraituan, mutilen eta nesken arteko agresibitatearen adierazpenik (irainak, mehatxuak, eraso fisikoak eta abar).	1	2	3	4
21. Ikastetxean ez da onartzen mutilen edo nesken ezein agresibitate mota.	1	2	3	4
22. Irakasleek jarrera bera agertzen dute beti agresibitate-adierazpenen aurrean, mutilena zein neskena izan.	1	2	3	4
23. Ikastetxean, Tutoretza Planaren bitartez, gatazken inguruko gogoeta eta gatazken konponketa lantzen da ikasleekin, eta sentsibiltate berezia agertzen da genero-gatazken aurrean.	1	2	3	4
24. Ikastetxeko jakintzagaietan, gatazken inguruko gogoeta eta gatazken eraldaketa lantzen da ikasleekin, eta sentsibiltate berezia agertzen da genero-gatazken aurrean.	1	2	3	4
25. Gatazka bat agertzen denean, genero-ikuspegia kontuan hartzen da.	1	2	3	4
26. Ikastetxean ez da onartzen iruzkin deskalifikatzaile sexistarik ikaskide batek hitz egiten duenean.	1	2	3	4
27. Mutilek eta neskek harreman onak dituzte elkarrekin, batzuk eta besteak hurbil esertzen dira, adiskidetasunaren eta kideatasunaren arabera, eta ez da tirabirarik ikusten sexuen artean.	1	2	3	4
28. Ikastetxean ez da sortzen estereotipoak eta/edo mutilen eta nesken arteko eskubide- eta betebehar-desberdintasunak agertzen dituen egoerarik.	1	2	3	4
29. Oro har, edozein mailatako irakasleek mutilak eta neskek eurekin komunikatzeko estiloa motibatzen, erakusten eta saritzen dute, eta ez dute uzten mutilek abantailak izatea (gehiagotan eta gehiago hitz egitea, neurri handiagoan oihu egitea eta abar).	1	2	3	4
30. Ezein mailatako irakasleek ez dute iruzkin deskalifikatzaile sexistarik egiten ikasle batekin hitz egiten dutenean.	1	2	3	4
31. Edozein sexutako ikasleek ez dute iruzkin deskalifikatzaile sexistarik egiten irakasleekin hitz egiten dutenean.	1	2	3	4
32. Irakasleen eta ikasleen arteko harremana egokia da beti, pertsonen sexua kontuan hartu gabe, eta ez da tirabirarik ikusten sexuen artean.	1	2	3	4
33. Irakasleek ez dute genero-estereotipoen lotutako terminorik erabiltzen ikasleekin harremanetan jartzean.	1	2	3	4
34. Nire ustez, ikasleek era desberdinean jokatzeko dute irakasleekin, gizonak direnean edo emakumeak direnean.	1	2	3	4

GATAZKEN ERALDAKETA BAKETSUA HEZKIDETZA-BIZIKIDETZAKO PROIEKTUEN BIDEZ**IKASGELAN**

35. Ikasleei egunero jasotzen dituzten zainketak ezagutzen laguntzen zaie.	1	2	3	4
36. Irakasleek ikasgela atsegin bat eta zaintza-espazioak sortzen laguntzen du, eta neskek zein mutilak laguntzen dute zaintza horretan.	1	2	3	4
37. Ikasgelan "enpatia" kontzeptua lantzen da, eta praktikan jartzen da ikasleekin (pertsonarik ahulenekin bereziki).	1	2	3	4
38. Ikasleei gatazken aurrean dituzten emozioak, erreakzioak eta estrategiak ezagutzen eta izendatzen laguntzen zaie.	1	2	3	4
39. Ezetz esaten eta beste pertsonen ezezkoa errespetatzen ikasi beharra lantzen da ikasleekin.	1	2	3	4
40. Gatazka eragiten duena eta era baketsuan konpontzeko ekintza alternatiboak (eztabaidatzea, hitz egitea, entzuten jakitea, norbera eta talde gisa zaintzea eta gure emozioak eta haien aurrean ditugun erreakzioak ezagutzea) aztertzen dira ikasleekin.	1	2	3	4
41. Ikasleekin eskola-jazarpenari buruzko gogoeta egiten da, genero-ikuspegian oinarrituta, jazarpen hori identifikatzeko eta ikasgela eta ikastetxea indarkeriarik gabeko gunetara bihurtzeko.	1	2	3	4
42. Ikasgelan, neskek eta mutilak izateko ereduak berdintasunean eraikitzekeo prozesua lantzen da filmen, eleberrien, bideojokoan, abestien eta abarren bidez.	1	2	3	4
43. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut semearekin edo alabarekin (edo ikastetxeko ikasleekin) gatazkek era baketsuan eraldatzeko aukera sustatzen, berdintasunezko identitate bat eraikitzekeo bidean aurrera egin ahal izan dadin.	1	2	3	4

Talde txikietan, item bakoitzeko erantzunak adosten saiatuko gara. Erantzunak argudiatu ondoren, akordioak lortzen saiatuko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertzea eta ondorengo taulan sailkatzea:

GATAZKEN ERALDAKETA BAKETSUA HEZKIDETZA-BIZIKIDETZAKO PROIEKTUEN BIDEZ		
	Zenbakiak	Arrazoiak
Indarguneak, jardunbide egokiak. (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean detektatutako indarguneak eta ahuleziak ikusi ondoren, hobetu behar diren eta epe laburrean lantzeko aukera gehien eskaintzen dituzten elementuak finkatuko ditugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, beraz, hobetzeko premia horiek datozen ikasturteetan lortzeko moduko helburu gisa formulatuko ditugu.

GATAZKEN ERALDAKETA BAKETSUA HEZKIDETZA-BIZIKIDETZAKO PROIEKTUEN BIDEZ	
HOBETZEKO PREMIAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK